

# JOSE LUIS ALVAREZ “Txillardegi”

Sociolingüista, ensayista, novelista, profesor de la Universidad UPV/EHU. Militante del euskara.



José Luis Álvarez Enparantza “Txillardegi”, escritor, lingüista y profesor de la Universidad del País Vasco, en su trabajo de titulado “Continúa el etnocidio legal de Euskal Herria”, afirma que “si nuestro pueblo quiere sobrevivir, deben producirse cambios profundos, revolucionarios” cuya base sería el derecho de autodeterminación.

Partiendo y profundizando en un análisis de las realidades lingüísticas, observa que “el mínimo exigible para la salvación de un idioma” es que cuente con un “territorio lingüístico propio”. Siendo verdad esta afirmación, Txillardegi muestra que “no hay territorio alguno en que el uso del euskara está normalizado”. Por decirlo de alguna manera lo mismo que si el castellano se perdiera en España -por un casual-, seguiría existiendo,

porque tienen asegurada su existencia en Latinoamérica, si se pierde el euskara en Euskal Herria, se habrá perdido del todo. Txillardegí afirma que se está produciendo un “etnicidio sin paliativos”; por lo cual es imposible encontrar motivos serios de optimismo para el futuro del euskara: “vamos como se puede; pero no bien”.

## LEGEBIDEZKO ETNOZIDIOA

### AURRERA BETI EUSKAL HERRIAN

Norbaitek besterik soma badezake ere, gogor gertatzen zait gaur ere, baikorkeria ofizialak nagusi diren une honetan (“el proceso de recuperación de nuestro pueblo es ya imparable”, “quien no habla vasco está ya hoy discriminado en la Comunidad Autónoma”, eta abar), berriro gezur horiek hemendik salatzea. Konfiantza badut nik neure herrian, hori bai; baina gaurko legetasun “hirukoitz” honen barruan eta errespetuan (eta Baskongadetakoa barne jartzen dut) Euskal Herriak ez dauka irtenbiderik.

Gure herria aurrera aterako bada, hitz batez, aldakuntza sakonak, aldakuntza iraultzaileak nahi bada, lortu behar dira. Eta aldakuntza horien oinarritzat, gure herriaren autodeterminazio eskubidea baliatu behar da.

Hizkuntzaren aldetik egingo dut nik neure azterketa hau; eta filosofikeria alferretan ez galtzeko, Suomi-ren kasoa (Finlandia-rena, alegia) argigarri hartuz, gaur egun ere - eta ez frankismoaren garai urrun eta madarikatueta bakarrik - Euskal Herrian *legebidezko etnozidio bat* burutzen ari dela erakutsiko dut. Beste hitzez esanda: gaur egun ere Euskal Herria desagertzeraz, eta ez bestera, daraman legebidezko zapalketa betean bizi gara. Hizkuntza bati bere *lurraldea osoki* aitortzen ez dioten *lege-sistemak oro*, etnozidiora “bakean” eta “legean” daramaten sistemak baizik ez baitira.

Genozidioa, jakina denez, herriak hiltzeko metodo basa eta zaharra da: herritarrak hartu, eta ehunka, milaka, miloika batzutan, sistematikoki garbitzea. Ipar Ameriketara, Armenian, juduen multzoan Hitlerren garaian, Biafran, Brasilen, adibide ezagunak ditugu. Herriak hiltzeko metodo hori,

noski, oso gaizki ikusia dago gaurko Europan; eta Espainian eta Frantzia era bai. Gure demokrazia bedeinkatu hauek, nola abiatuko ote lirateke horrelako itsuskeriatan barrena? Otoi:

Gaur, beraz, nazio arazo zailak menderatzeko, kultur genozidioaren metodoa erabiltzen da, "etnozidioa" rena. Rolland Dretonen hitzez azaltzeko: "il s'agit de la *destruction systematique des traits culturels ethniques*; qui aboutit a changer *graduellement* le caractere d'une population minoritaire, en l'integrant a l'ethnie dominante... Il s'agit la d'une deculturation-acculturation, qui entraine la *disparition* de l'ethnie, mais *peut laisser en place* les populations dans leur territoire.

Hots, berriro ere geure arteko ahanzkorrei gogorazi behar, herri hizkuntza hil ondoren - Euskal Herrian erdaldundutako eskualdeetan ezin garbikiago ikusi dugunez - oinarririk gabe gelditzen da herri kontzientzia; eta kultur asimilazioari, suntsiera politikoa eta nazionala darraikio. Zeren-eta, flandretarren hitzez esateko: "De taal is gans het volk" (= hizkuntza herri osoa baita).

Hiru legetasun desberdinek baldintzatzen dute gaur gure herria. Iparraldean eta Nafarroan, ezaguna denez, egon ere ez dago ofizialki hizkuntza arazorik. Baskongadetan, berriz, euskararen alorrean nolabaiteko laguntza giroa sortu bada ere (berehalaxe Madrileko gobernuak inpugnatua), *persona eskubideen maila* ere ez da iristen; eta are gutxiago, beraz, hizkuntzaren geroa segurtatzeko behar den maila minimoa: *lurralde eskubideena*. Bere lurraldean, bestela esanda, bizi alor guztietan hizkuntzaren *erabilpena normalizatuta* egotea.

Suomiko kasoan ikus daitekeenaz (eta ondorio berberak atera genitzake, noski, Belgika, Suiza edo Kanadako legetasunak eta ondorioak aztertu bagenu), *lurralde eskubideetatik behera ez dago hizkuntza zapalduentzako salbaiderik*.

Garbikiago esanda, gure herria gaur erdal asimilazio eta desagertzearen bidetik doa.

#### *Suomiren abiagunea lau hitzetan*

Suomiko egoera, suomitar abertzale mogimenduaren hastapenetan (1880 inguruan, eman dezagun), oso hitz gutxitara laburbilduz, honelakoa zen:

— Goiko klaseak suezieraz bizi ziren: "No solo hay dos lenguas — idatzi zuen Ganivetek — hay dos vidas diferentes: la una la de los finlandeses "asuecados", si me es lícito inventar tan fea palabra; y la otra

la de los finlandeses tradicionales. Los primero ocupan lugar preeminente en la sociedad; los segundos ya dije que vivían en los sótanos y las buhardillas, puesto que están en el interior del país, o forman las “clases bajas” en las ciudades.

– Aginte politikoa sueziar multzoari zegokiom.

– Hirietako kaletarrak, Ganivetek zuzenki ikusi zuen bezala, sueziarrak ziren hein handi batez: % 38,2 (1880). Helsinki hiriburuan bereziki (gure geografia zaharretan: Helsingfors), sueziarrak nagusi: % 57 (1870); bertako suomitarrek % 25,9 besterik ez zirelarik. Joera bera Mendebaldeko itsasertzean: Uusikapanki (Nystad), 1910an: sueziarrak % 41,1, suomitarrek % 52 (nagusi ia-ia).

– Helsinkiko Unibertsitatea, suezieraz ari (1894 arte, suomieraren ezaguera eskatu ere ez zen egiten).

– Liburu argitaraketa (1900): % 60, suezieraz.

Gehiengoa, dena dela, itsasertzetik at, suomieraz mintzo zen: % 14,3 bakarrik suezieraz, suomi osoa kontutan hartuz (1880). Eta eskola, joan den mendearen erditik aurrera batez ere, suomieraz egiten zen barrualdean; Helsinkin horretarako 1869ra arte itxaron behar izan bazuten ere.

Hitz batez, gutxiengoaren hizkuntza zen sueziera, hori bai; baina legea, agintea, dirua, hiritartasuna, kultura, suezieraz mintzo ziren, inperialismo guztietan bezalaxe.

Estatistikoki, beraz euskara garai hartako suomiera baino azkarrago badago ere, antz handiagoa du, zenbait aldetatik, gutxiengoan zegoen sueziarekin, suomierarekin baino.

Kontua, ordea, hau da: euskara baino askoz ere egoera azkarrago batetik abiatu ere, eta Euskal Herrian euskarak duen legetasuna baino hobe zen batek babesturik ere, sueziera gainbehera joan dela Suomin; eta aurki, Aaland uharteetan salbu, desagertzeko arriskua hortxe dagoela.

#### *Lurraldetasuna eta eskubide pertsonalen artean*

Hain zuzen, Suomiko nagusiak sueziarrak zirelako, kontuz eta tentuz jokatu dute suomitar abertzaleek, nahiz beti tinko; eta sueziarak bere alde izan duen legetasuna, lurraldetasuna eta pertsonatasunaren artekoa izan da. Suomitarrek, beraz, Belgikako flandretarrek baino bikunkiago jokatu dute. Eta Aaland uharteetan (gaur 21.000 bizilagun) Autonomia harrigarria (1951) eta lurraldetasuna onartu dizkiete.

Estatuaren *Administrazioaren* mailan eta *Tribunaletan*, *Suomi* osoan (Aaland uharteak beti at utziz) onartu dira eskubide *pertsonalak*. Alegia, Suomiko *edozein lekutan*, baita itsasertzeko suezierazko eskualdeetan ere, biztanleek suezieraz edo suomieraz mintzatzeko eta idazteko eskubidea dute. *Estatuarekiko* harremanen hizkuntza, hitz batez, *persona- ren* esku dago. (Esan beharrik ez dago ez dela hori gure kasoa: ez Espainia edo Frantzia osoetan, noski; baina Baskongadetan ere ez: joan zaitez Gobernu Zibilera, Komisariara edo Tribunalera euskaraz mintzatzeko)

*Eskolaren* mailan, nolabaiteko *lurraldetasuna* erabili da Suomin- eskola guztiak udal eskolak izanik, udalari dagokion hizkuntza erabiltzen da beretan: suomiera, sueziera, edo biak eskual elebidunetan.

Eskualdeak *geografikoki* zedarritzerakoan, Beljikako eredia hartu zen gidari, baina *lurraldetasuna* lortzeko maila gorago jarritz: udalerrri batetan gutxiengoak %12 baina *gehiago* iritsiz gero, udalerrria *elebidun*, eta eskubide *pertsonalak*; eta gauza bera % 88-raino. Adibidez: X udalerrian, % 70 suomieraz eta % 30 suezieraz mintzatzuz gero, udalerrria *elebidun*, eta eskubide *pertsonalak*. Y udalerrrian, berriz, % 7 suezieraz eta % 93 suomieraz, udalerrri *elebakarra*, suomieraz, eta eskubide *territorialak* nagusi (Belgikan baina ahulago, halere). Beste muturrean, jakina, alderantziz, % 92 suezieraz, % 8 suomieraz: udalerrri *elebakarra*, *suezieraz*, eta *lurraldetasuna* gidari.

Horrela egin zen hizkuntz mapa, eta hiru eskualde zedarritu ziren: bi, *lurraldetasun* bigunduaren arauera legezatuak: suomiera hutsez eta sueziera hutsez; eta hirugarrena, "kaletarrena" hain zuzen, *elebiduna*, eskubide pertsonalen errespetuan eraikia. *Irakaskuntzaz* ari gara, bereziki; baina baita *udalerrri mailako zerbitzuez* ere.

Suomiko hiri nagusiak, dena dela, *elebidun* proklamatu ziren: helsinki / Helsingfors, Turko / Abo, eta Vaasa/Vasa.

Legetasun *simetriko* hori, egoera *asimetrikoari* erantsia, sueziar gutxiengoaren aldekoa zen; eta ez da aski izan suezieraren gainbehera baztertzeke.

#### *Udalerrrien sailketa urteetan barrena*

Irizpide horren arauera, eta aurrerago emango diren zehaztasunen arauera, hauxe izan da Udalerrrien kopuruaren eboluzioa:

	G. Heraud 1962	M. Stephens 1968	Ojanen 1972	Allardt 1976	Riiho 1982
Suomieraz	438	456	438	404	399
elebidunak	44	47	43	42	39
Suezieraz	47	44	31	29	26

Ikus, adibidez, 1951ko mapa:

Les Ethnies (R. Breton, 53)

Xehetasun batzu eztabaidatu gabe utziz, eta azken urteotan Suomen ere udal batuketak gertatu direla ahanzi gabe, berehala azpimarra daitezke oinarrizko puntu batzu:

a) Udalerri *gehienak*, betidanik (eta Suomiko geografi zabalerarik handiena) *suomiera* hutsez gobernatzen dira, *lurraldetasunezko* printzipioen arauera.

b) Kostaldeko *hiri nagusiak*, Helsinki bera barne, *elebidunak* dira; eta beroietan eskubide *pertsonalak* dira gidari.

c) *Sueziera* hutsezko udalerrien kopurua, behera doa haseratik. (16 udalerrri Aaland uhartereei dagokie, bestalde).

d) Aaland uharteetan, sueziar *lurraldetasun hertsia* da nagusi; eta sueziera ez da jaitsi: % 96,3 sueziar.

*Sueziar jendaketaren beherakada*

Aaland uharteak salbu, sueziera behera joan da eten gabe:

urtea	sueziar kopurua	ehunekoak %
1880	294.900	14,3
1900	349.700	12,9
1920	341.000	11,0
1940	354.000	9,5
1950	348.300	8,6
1960	330.500	7,4

1970	303.400	6,6
1980	304.000	6,4

Hain zuzen ere, beherakada horretaz sueziarrak jabeturik, behin eta berriz mugatu dute suomitar lurraldetasuna ezartzeko portzentajea:

1935	—	% 88	(suomiera hutsa legezatzeko)
1962	—	% 90	
1975	—	% 92	%

Suomiko legea beti simetrikoa izaten denez gero, portzentaje berak dira suezierazko lurraldetasuna legezatzeko behar direnak. Baina helburua, jakina, sueziar gutxiengoa babestea da. Garbiago ulertzeko, eman dezagun muga % 99-tan jartzen dela: sueziar gutxi horiek, % 1, Estatuaren mailako zerbitzuetan *sueziera ere erabiltzera* behartuko luteke.

Bide beretik, portzentajea zein-nahi izanik ere (hauxe da Turku-ren kasoa: % 5,8 sueziar bakarrik, 1970an), aski dira 5.000 sueziar hiri berean egotea (1962), are 3.000 bakarrik ere (1975), Udalerria, besterik gabe, *elebiduna* izan dadin.

Beti bide beretik: Belgikatik eta Suizatik urrunduz, aski dira 18 sueziar haur edozein herritan, Estatuak suezierazko eskola bat ireki diezaien ... (Euskal Herrian bezalaxe!).

Halaz ere sueziera behera joan da eten gabe. Zergatik joango da gora Euskal Herrian?

#### *Sueziar eskualdearen murrizketa*

Arestian eman dugun mapan ikus daitekeenez, orain dela 35 urte lau sueziar eskualde gelditzen ziren:

- a) Bi Vaasa aldean, Jakobstad eta Vaasa inguruan. (N).
- b) Bat Hango inguruan (SW).
- c) Laugarren bat, Aaland uharteetan.

Hots, Timo Riihok 1982an zabaldutako mapan, Hangu eskualdea elebidun agertzen da. Eta Iparraldekoak ere txikitzen ari dira, herri askotan (14 bat) sueziar gehiengoa galdua delarik.

Beharakada horren arrazoi nagusia, lurraldetasunik eza da: Aaland uharteetan sueziera tinko dago, Suezian bezalaxe; eta itsasertzean ongi

dirauen herrietan, suezierazko lurraldetasuna dago.

Horrez gainera, beste lau arrazoi hauek aipatu ohi dira:

1/ Sueziako bizi-maila oso gora izanik, "finlandiar doinua" beste hizkuntz arazorik ez duten Suomiko sueziarrek, erraz jotzen dute Suezia aldera. Suomitarrek nekezago; nahiz gaur Suezian bizi diren 300.000 finlandiarren artean, parte bat suomitarra izan. (Nolanahi ere, asimetria interesgarrian, Sueziako suomitarrek ez dute inolako eskubide pertsonalik han).

2/ Sueziar finlandiarrek haur gutxiago izaten dute suomitar finlandiarrek baino.

3/ Sueziar eta suomitar bana sortutako ezkontzen ondoko familietan, normalean suomiera nagusitu ohi da.

4/ Gaur lanpostu gehiago dago suomieraz, suezieraz baino. Lanean suomieraz eta etxean suezieraz egitea ez da iraunkorra, eta laneko hizkuntza nagusitzen da familian.

Barne emigrazioak, bestalde, suomiera indartu du hiri nagusietan; Helsinkiko eboluzioan ongi agertzen denez:

Helsinki

Urtea	Suomiera	Sueziera	Errusiera
1870	25,9	57,0	12,1
1890	45,4	45,6	5,6
1910	59,2	35,1	4,0
1930	69,4	28,5	0,8
1950	79,7	19,2	0,7
1960	84,9	14,4	0,3
1970	88,9	10,6	0,2
1980	89,5	09,7	—

Sueziarren laurdena, dena dela, Helsinkin bizi da:

1960	65.338	(= % 14,4)
1970	54.088	(= % 10,6)



Hona hemen sueziar multzorik handienak dituzten eskualdeen egoera (1970):

- Vaasa aldean: 99.034 (% 23,5)  
(Jakobstad, Kasko eta Kristinestad nagusi)  
(Vaasa berean: 14.043; % 29,2)
- Turun-Parin aldean: 28.810 (% 4,3)  
(Turkun bertan: 8.835, % 5,8)
- UUsimaa aldean: 149.734 (% 14,9)  
(Hango, Ekenas, Boega, Lovisa, nagusi)  
(Helsinki berean: 54.088; % 10,6)
- Aaland uharteak: 19.903 (% 96,3)

*Finlandiarren artean, elebidun gutxi*

Timo Riihok azpimarratzen duenez, bai 1922ko Hizkuntz Legean, bai ondotik etorri diren zehazketa eta aldakuntzetan, garbi gelditu da Suomiko gobernuaren helburua: Estatuaren *instituzioak elebidunak* izango dira, *finlandiarrak oro* (suomitar zein sueziar) *elebakarrak izan daitezzen*. “Bilingüización general” delakoa, beraz, ezta projektuan ere.....

Eskolan, dena dela, 9 urteak betez geroztik, bigarren hizkuntza sartzen da. Horren ondorioz sortzen diren “elebidunak”. dena dela, espero zen baino traketsago ari dira beren bigarren hizkuntzan.

Praktikan, horrela, egoera hau da: sueziarren artean % 55 elebidun; suomitarren artean, % 20. Eta zifratan:

Suomitar elebidunak: 0,2. 4370000 = 874.000 F(S)

Sueziar elebidunak: 0,55. 300000 = 165.000 S(F)

Guztira: 1.039.000 elebidun

Mintzatzeko trakets ari direnak ez kondatzekotan, hauxe da elebidunen kopurua: 600.000 (T. Riiho). Suomi osoaren arauera, % 22 Bakarrik. Elebakarrak, % 78 direlarik.

Gurean gertatzen denetik urrun, *sueziar elebakar pilo bat* dago oraindik Suomin: 0,45.500000 = 135.000. Suomieraz oso gaizki moldatzen direnak erantsiz gero, Timo Riihok ematen due 160.000 *elebakarra* sortzen dira. Non daude gure 160.000 euskaldun hutsak?

Hala ere, Aaland uharteetatik kanpora, arriskutan dago sueziera.

Zer esanik ez URSS-eko Karelian: Stalinen deportazioaren ondorioz, eta geroztik etorritako errusiar inmigrazio gaitzaren ondorioz, gaur egun Kareliako errepublika Sozialistan *gutxiengoa* bihurtu dira Kareliako suomitarrek: % 11,1. (80.000 gutxi gora behera, 736.000 gustizkoaren arauera: kareliarren suntsiera “demokratikoki” lortzeko mementua etorri da, beraz).

#### *Lau hitz bukatzeko*

Aldamenean Suezia Estatu aberatsa eta azkarra dutelarik, standardizazio arazorik gabe, klase nagusia alde izan dutelarik, babes legeria guztia alde ere bai, eta hala ere sueziera behera badoa, nondik nora etor daiteke euskal giro ofizialen baikorkeria? Ez dakit, benetan. Are Baskongadetan ere, urrun gaude eskubide *pertsonaletatik* beretatik. Areago: alderdi abertzaleetan, ez dago inolako lurraldetasunik, eta elebitasunik ere ez: nola mintzatuko dira euskaraz, erdaraz baizik ez dakiten buruzagiak? Alderdi abertzaleetan ere eskubide pertsonalik eskatzerik ez dago. Argi ibili, hain zuzen.....!

Gauzak aldatu ez direno, hitz batez, irrazionala litzateke ongi goazela esatea. Ahal bezala goaz. Ongi ez.

Hitz batez: garrasirik gabe, bake giroan, irribarrea nagusi, aurrera doa gure legebidezko desagerkuntza. Etnozidio borobila, hitz batez; baina, hori bai, “garbiya”.